

ALOKABIDE, S.A.

Sozietatearen izena

Alokabide, S.A.

IFK

A01300706

Izaera

Sozietate publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea eratu zen 2000ko martxoaren 28an emandako eskritura publiko bidez, eta Euskadiko Alokairuzko Etxebizitzak, S.A. izena hartu zuen, honako hau oinarri hartuta: [Gobernu Kontseiluaren erabakia, 2000ko martxoaren 28koa, baimena ematen diona "Sociedad Pública Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A." sozietateari parte har dezan "Orubide, S.A." eta "Euskadiko Alokairuzko Etxebizitzak, S.A." izeneko sozietate berrien eraketan.](#)

2003ko ekainaren 9an, sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiak sozietatearen izena aldatzea onartu zuen, eta egungo Alokabide, S.A. izena erabaki zuten. 2003ko uztailaren 30ean egin zen erabakiari zegokion eskritura publikoa.

2011ko ekitaldian, sozietatea sozietate publiko bihurtu zen, honako hau oinarri hartuta: [65/2011 DEKRETUA, martxoaren 29koa, Alokabide SA sozietatearen partaidetzak erosi, eta sozietate publikoa sortzea erabakitzen duena.](#)

Urte horretan ere, [181/2011 DEKRETUA, uztailaren 26koa, Alokabide SA eta Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler / Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA sozietate publikoen bat egitea onartu, Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler / Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA sozietatea azkendu eta Alokabide SAre estatutuak aldatzeko dena](#) oinarri hartuta, sozietateak Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa, S.A. xurgatu zuen.

Sail-atxikipena

Enplegua eta Gizarte Politikak

JESN

6820 Ondasun higiezinak norberaren kontura alokatzea.

Helburu soziala

Sozietatearen xedea honako hau da:

- a) Etxebizitzak sustatzea eta berritzea, eta, hasiera batean, alokairuan jartzea; hala ere, hori ez da eragozpena izango etxebizitzak euren errentariei, edo horiei ez bada hirugarren batzuei, eskualdatzeko.
- b) Sustatutako etxebizitzetarako dagokienez, era guztietako obrak, azterlanak, proiektuak eta mantentze-lanak esleitu eta kontratatzea.
- c) Era guztietako obrak, azterlanak, proiektuak eta lanak kontratatu eta esleitzea, etxebizitzak, lantegiak edo negozio-lokalak –a) idatzi-zatian zehaztutako eran ustiatuko direnak– eraikitzea edo, hala behar izanez gero, berritzera bideratutako lur-sailak urbanizatzeko.
- d) Edozein eratako ondasun higiezinak erostea eta saltzea, eta aurreko puntuetan aipatzen diren helburuak lortzeko eta jarduerak gauzatzeko beharrezko edo komenigarriak diren eraikuntzak horietan egitea.
- e) Laguntza teknikoa hirugarrenei eskaintzea, eta teknika-, ekonomia-, industria-, merkataritza- eta komisio-zerbitzuak edo sozietatearen izaera eta jarduerekin bat datorren beste edozein zerbitzu ematea, trukean ordainketak jasoz.
- f) Alokairu-erregimeneko etxebizitzak kudeatzea.
- g) Etxebizitza Hutsaren Programa kudeatzea, zehazki, programa hori arautzen duen [466/2013 Dekretuko](#) baldintza eta zehaztapenekin bat, baita arlo honetaz diren arauak garatu edo ordeztzeko ezein araudirekin ere.
- h) Errentamendu-erregimenean baliatu ahal izateko, ezein lagapen-tituluren bidez esleitzen zaizkion etxebizitzak kudeatzea.
- i) Onuradun legez edo zuzenbidez onartutako edozein bidez, eta indarreko araudiak zehaztutakoarekin bat etorritik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari babesa ematea honako jarduera hauetan: Euskal Autonomia Erkidegoari etxebizitzak lehentasunez eskuratzeko aitortutako eskubideaz –lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz– baliatzeko bitartekaritza-, kudeaketa- eta exekuzio-jardueretan, hain zuzen; eskubide hori babes ofizialeko etxebizitzak eskualdatzeari dagokionez aitortu da; betiere, [apirilaren 15eko 7/1988 Legean](#) eta hori garatzeko araudian jasotako baldintza eta zehaztapenekin bat etorritik, bai eta [maiatzaren 6ko 103/1007 Dekretuarekin](#) eta arlo honetako arauak garatu edo ordeztzeko ematen den beste edozein araudirekin ere.
- j) Etxebizitzak transmititzeko bitartekaritza eta haien geroztiko akurapena edo salmenta egiteko jarduerari dagokienez, babesa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari; betiere, babes ofizialeko etxebizitzetarako buruzko araudiarekin bat, etxebizitzaren titularrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku jarri behar badituzte.
- k) [Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen](#) 24.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Alokabide SAK berezko tresna eta zerbitzu tekniko izaera du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrentzat, sozietatearen kapitalean partaide diren gainerako erakundeentzat, eta haien mendeko erakunde autonomo eta gainerako erakunde publikoentzat.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak

Kapital soziala

3.005.060 € (12.020.242 € eskrituran, eta eskatu gabeko 9.015.182 € kenduta)

Kapital sozialaren osaera

EAEko Administrazio Orokorra: % 100

Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzen eta ordezkatzeko duen organoa. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egiten dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Ángel Toña Guenaga jauna	presidentea.
M. Covadonga Solaguren Santamaría andrea	lehendakariordea.
Miren Saratxaga de Isla andrea	
Marcos Muro Nájera jauna	
Iñaki Arrizabalaga Ormaetxea jauna	
Ignacio Basáñez Alfonso jauna	
Javier Losa Ziganda jauna	

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 100

Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programaturako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	234.552.660 €
Ondare garbia	46.973.370 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	27.862.574 €
Batez besteko langile-kopurua	74

Sozietatearen helbidea

Gamarrako atea 1 A, 2. solairua - Vitoria-Gasteiz (Araba)

Web gunea

www.alokabide.eus